

Berrigarra



BERRAONDO ETA MURUAMENDIARAZ

Mundialak



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA



GORTASUNAREN LAGUNTZA JARDUNALDIAK

AZAROAK 9-10-11-12-13
DEITU TXANDA HARTZEKO

ENTZUMENAREN
AZTERKETA DOHAINIK

AUDIFONOEN
APURKETAREN ASEGURUA
(LEHENENGO URTEA)

ORDAINKETA, NORBERAREN
NEURRIAN

Ibargarai, 16 - Tel. 943761575
BERGARA


J. Carlos Guerra, 1 - Tel. 943792995
ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp - Tel. 943889988
ORDIZIA

VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea
babesteko gaudu*



902 202 502



**VENTANAS
SAN MIGUEL**


SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



CLINIQUE
Alergien aurkako probak gaititua.
100% lurrin gabea.

Zeuretako kapritxoa. Hauxe duzu zeure Clinique Oparia.

Clinique produktuak erosten dituzunean, euren artean aurpegirako tratamendua baldin badago, "AltxorTxikiak" oparia jasoko duzu. Goza ezazu berarekin. Honako hau dakar opariak:

Dramatically Different Moisturizing Lotion-a, azal guztiek behar duten "edari" hidratatzailea.

Non-Aerosol Hairspray-a, laka spray eran. **Rinse-Off Foaming Cleanser**-a, makilajea kentzeko bitsa.

Different Lipstick-a, ezpain-hidratatzailea. **Chubby Stick**-a, ezpainetakoa eta profilatzailea dena batean, zorrozkaile eta guzti. **Nezeserra**. Zeure zain gaudu.

Clinique. Alergien aurkako probak gaititua. 100% lurrin gabea. www.clinique.com

Azaroaren
2tik 7ra bitartean

 **Valga**

Ibargarai 10. 943 76 00 85

Bezero bakoitzeko opari bat. Azaroaren 7rarteko edo agortu arteko promozioa.



Berlingo hormaren gainbehera

Iñigo Urrutia / Kazetaria

Hauteskundeetako emaitzek irakurketa piloa egiteko aukera ematen dute ikuspuntu askotatik aztertu daitezkeelako. Jarlekuak galdu baina botoak irabazi e.a. Dena den, herritarren bozketaren ondoren, besteak beste, hurrengo ondorioak atera daitezke: lehenengo, hauteskunde kanpainan egiten diren zikinkeria gabeak izan daitezkeela. Beldurra- ren mezuak igoera nabarmena eragin du eta etekinak alderdi guztietan banatu badira ere, boto gehienak PPK eta EHk berenganatu dituzte.

Popularren kasuan, Ermuko izpirituaren irabazleak izan dira. Azken finean, lau urteotan ETAK erahil dituen kargu publikoek Iturgaizen alderdia biktimizatu egin dute. Miguel Angel Blancoren hilketarekin ETAK euskal hiritarrak umildu egin zituen, eta gizarteak ez omen du barkatzen horrelakorik.

Aldiz, EH-ek izan duen gorakadak erakusten du ezker abertzaleko proiektuak jendearen adostasuna lor dezakeela borroka armatuaren desagertzea hurbiltzen den heinean. Bide politikoa jorratzeko botoak izan dira, bortxakeria alde batera utziz. Gertatu zitekeen emaitzarik onena izan da. Ikusteko dago zein izango den ETaren irakurketa, eta zuena izango delakoan nago, suetena indartzen duelako. Hiritarrek eraikuntza nazionalaren proiektua politikaren ildotik indartzea nahi dute.

"Parabellumak isildu direnean, orain baldintza berri bat planteatzen dute, ETA erakundea desegitea. Kontua da benetako eztabaidaren hasiera ahalik eta gehien luzatzea"

Kontua da datozen egunotan eskematoki politikoan hamaika gauza berri ikusteko aukera izango dugula. 30 urtez bakearen zain egon eta gero, badi-rudi zenbaitzuk ez dutela ikusi nahi bakea sudurraren aurrean dutela. Agian, erosoago sentitzen direlako gatazkak irauten duen bitartean. Lehenengo eta behin ETArri exijitzen zioten armak isiltzea edozein proiektu politiko eztabaidatzeko. Parabellumak isildu direnean, orain baldintza berri bat planteatzen dute, erakundea desegitea. Kontua da benetako eztabaidaren hasiera ahalik eta gehien luzatzea. Dena den, ez dezagun ahaztu gauza bat medioen bitartez plazaratzen diren aldarrikapenak direla eta beste bat -normalean esaten denaren kontrakoa-, sukaldean prestatzen direnak. Beraz, berri onak ezagutzeko prest egon gaitezten. Berlingo hormaren gainbehera askoz ere azkarra goa izan zen. Inork asmatu zuen gertatuko zena? B

barruan



Gonzalo Berzosa

Gerontologoa

"Gaur egun, osasunez, baliabide sozialekin eta autonomiarekin zahartzen da"

8. orrialdean.



I. Muruamendiaraz

Pilotaria

"Oso harreman onak egin ditugu beste herrialde batzuetako pilotariekin"

22. orrialdean.



Amaia Agirre

Udaleko langilea

"Esana ez didatenean betetzen sutan jartzen naiz; abertzaleen arteko gobernua nahi nuke"

29. orrialdean.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1919. Urriaren 30ean testileko langileen eta ugazaben arteko akordioa lortu zen. Lan jarduna 13 ordutatik 10era jaitsi zen. Urriaren zehar greba egin zuten Bergarako ehungintzako langileek eta hamabost bat egun greban eman ondoren lortu zen akordioa.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1561. Urriaren 27an Lope de Agirre fusilatua izuten.
1920. Urriaren 28an Alfa kooperatiba sortu zen Eibarren.
1970. Urriaren 28an ETAko hainbat kideren kontrako Burgoseko prozesua hasi zen.
1982. Urriaren 26an Ertzaintza euskal polizia, lanean hasi zen.
1987. Urriaren 29an Eduardo Txillidak "Príncipe de Asturias" saria jaso zuen.

MUNDUAN GERTATUA

1956. Urriaren 29an TVEK emanaldiei ekin zien.
1982. Urriaren 28an PSOEK erabateko gehiengo lortu zuen hauteskunde orokorretan.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 23
 14-35-36-39-44-45 (osag.25/er.6)
Astelehena 26
 4-9-17-39-42-44 (osag.46/er.3)
Martitzena 27
 4-15-25-34-39-41 (osag.42/er.4)
Eguaztena 28
 13-16-21-31-34-49 (osag.14/er.1)

PRIMITIVA


Zapatua 24
 2-19-28-31-38-47 (osag.43/er.9)
Domeka 25 Gordoia
 17-18-20-21-30-39 (osag.23/er.1)

ONCE

Eguakitza 23: 34.073 (K. seriea: 089)
Astelehena 26: 69.430
Martitzena 27: 41.976
Eguaztena 28: 71.477

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Eguren eta eguakitzean eguraldiak okerrera egin badu ere, zapatu eta domekarako hobera egingo du. Zeruan hodei batzuk agertuko zaizkigu baina urdinguneak nagusituko dira. Tenperaturak gora egingo du. Hegoia nagusituko da.

Eguzkia

Domeka, azaroak 1



Sortu: 07:47







Gorde: 18:13

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguena 22	24	9	-
Eguakitza 23	24	7	-
Zapatua 24	21	11	2,1
Domeka 25	15	14	5,8
Astelehena 26	20	10	4,5
Martitzena 27	21	9	-
Eguaztena 28	24	6	-

Ilargiaren aldiak

-  Ilberri: urriak 20
-  Ilgora: urriak 28
-  Ilbete: azaroak 4
-  Ilbehera: azaroak 11

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Aldar

Alde batera kaida duen zoruz aldarra duela esaten da.

- Aldarrian dago soo aura ta eztakitt zela ibiliko gan goldatzeko.

- Azpixon aldar puxka bat pe badauka ta orreatik gelditzen da kili-kolo maixa.



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Haginetako bakuna

Londresen tabakoaren landaretik eratorritako txertoa sortzen ari dira kariesaren aurkako soluzioa izango delakoan. Horretarako, tabakoaren landarea eraldatu egiten dute genetikoki. Proiektu honetan Londreseko Guy's Hospital Dental School-a eta Planet Biothecnology konpainiak dihardute eta lau urte barru txertoa kalean izango direlakoan daude.

Farmaziak

Eguakitza 30:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 31:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 1:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 2:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 3:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 4:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 5:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 1: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Udaletxea	943 77 91 00
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Jubilatuena Etxea	943 76 21 40
Postetxea	943 76 26 85

zorion agurrak



David Perez
Urriaren 30ean
21 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Xabier Lazkano,
"Xagu"
Urriaren 27an 24 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Ion Arruti
Urriaren 22an
20 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Aitzol Mendizabal
Urriaren 14an
20 urte.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Nicomedes Velardez
Urriaren 19an
90 urte.
Urte askotarako!
David, Naiara, Alex.



Pedro Zaloña
Urriaren 19an
90 urte.
Urte askotarako!
denon izenean!



Felix Maiztegi
Urriaren 21ean
21 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Manuel Mateo
Urte askotarako!
Etxekoak
eta lagunak.



Miren Zaloña
Urriaren 26an
6 urte.
Urte askotarako!
Eta mila patxito!



Jabier Zaloña
Urriaren 23an
urtebetetzea.
Zenbat urte?
Urte askotarako!



Inazio Madinabeitia
28an auskalo zenbat.
Urte askotarako!
Iker eta Aitor ilobak.



Mireia Argarate
Urriaren 30ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Egoitz Albizuri
Urriaren 22an
3 urte. Urte askotarako!
Osaba-izebak
eta aitona-amonak.



Danel Plazaola
Urriaren 22an
urtebete.
Urte askotarako!
Eukene eta Markel.



Ion Mujika
Urriaren 4an
4 urte. Urte askotarako!
Aita, ama eta Mikel.



Gaizka Marzan
Urriaren 31n
9 urte. Urte askotarako!
eta ondo pasa!
Etxekoak.



Maruja Lopez
Azaroaren 1ean
85 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Pablo Rodriguez
Urriaren 30ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Joaquina Delgado
Urriaren 24an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Jayet Ruiz
Urriaren 25ean
14 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Maria Errasti
antzuolarrak, urriaren
28an 83 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Judith Sagasta
23an urtebete. Urte
askotarako! Yasmi,
Shere, lehengusinak
eta aita ponteokoak.




Ainara Pildain
Urriaren 31n
urtebete.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jurdana Pildain
Urriaren 6an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Azkondo
Urriaren 30ean
18 urte. Ea espabillatzen
zaren mutiko!
Ezetz igarri nor?



Igor Silva
Urriaren 27an
22 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Iturrikastillo
Urriaren 31n urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Aitor Oianguren
Azaroaren 1ean
11 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Ana.



Leire Sanz
Urriaren 30ean
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



J. Alberto Eguren
Urriaren 27an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.


ESKELA

Pilar

Garaikoetxea Etxaniz

1998ko urriaren 22an hil zen, 57 urte zituela.

*Une goxoak gogoan
lanak eskuan, euskara aboan
aurrera ere zu gure ondoan*



JARDUNeko eskulanetako lagunak


ESKER ONA

Pilar

Garaikoetxea Etxaniz

Bergaran hil zen
1998ko urriaren 22an,
57 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi
eskerrik asko sendikoen izenean.*



■ jaio t a k o a k

BERGARA

Peio Irizar Laskurain
Urriak 1
Cristian Gomez Galdos
Urriak 14
Jabier Santorcuato Azkarate
Urriak 17
Ander Arruti Lapeira
Urriak 23
Leire Gantxegi Kortabarría
Urriak 24

■ h i l d a k o a k

BERGARA

Maria Larrañaga Lete
Urriak 25, 86 urte
Santos Rodrigo Benedi
Urriak 26, 89 urte



Nerea Agiriano
Urriaren 28an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.



Nerea Reparaz
Azaroaren 6an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Koadrilakoak.

ANTZERKIA

► Markeliñe taldearen **"Kartoi biraka"** antzezlanaren bihar, hilak 31, 19:00etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian.

BERTSOAK

► **Hiru altx** taldeak antolatutako bertso jaialdia bihar, zapatua, 22:00etan, Aretxabaletako Zeraia zine aretoan. Xabier Euskitze, Unai Iturriaga, Imanol Lazkano eta Andoni Egaña arituko dira bertsoan eta gai-jartzailea Jon Sarasua izango da.

ERAKUSKETAK

► **Garbiñe Arrietaren** margoak Kultur Etxean, domekara arte.

IKASTAROAK

► **Lore lehorren ikastaroa** azaroaren 11tik abenduaren 23ra, eguaztenetan, 18:30etatik 20:30etara. Izen-ematea azaroaren 6ra arte zabalik. Argibideak eta izen-ematea Jardunen: 943 76 36 61.

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak bereziki helduei zuzendutako fandango eta arin-arin ikastaroa antolatuko du azarotik aurrera (zapatuetan 11:00etatik 12:30ak

KONTZERTUA

Blind Guardian eta Iced Earth

Non: Jam Aretoan
Noiz: zapatuan, 22:30etan
Sarrerak agortuta

Blind Guardian heavy talde alemaniar ezagunak "Nightfall in middle earth" bere azken diskoa aurkeztuko du bihar zapatua Jam aretoan. Talde alemaniarra gaur egungo heavy estiloko talderik arrakastatsuenetakoa bilakatu da eta horren lekuko biharko emanaldirako sarrerak agortuta daude dagoeneko. Blind Guardianek sei bat disko kaleratu ditu bere sorreratik eta "Imaginations from the other side" izenburuko lanak bihurtu zituen ezagun munduan zehar. Adituen arabera heavy klasikoa egiten dute eta gotikoarekiko duten zaletasuna nabaria da euren musika eta letretan. Abesti askotan J.R. Tolkien idazle ezagunaren ("El señor de los anillos") tes-

tuak egokitu dituzte. Hansi Kürsch (abeslaria eta baxua), Andre Olbrich eta Marcus Spelen kitarrajoleak eta Thomas Stauch (bateria) taldekideek azken diskoari eta beren kantu ezagunenei erreparoa eman go diete bihar Amillagako aretoan.

Alemaniarren aurretik Iced Earth iparramerikarrak taularatuko dira bihar. Floridako talde hau Blind Guardian-en antzeko estilokoa omen da eta bihar euren azken laneko ("Something wicked this way comes") abestiak joko dituzte. Ohizko heavy-ari beste estilo batzuk ere gehitzen dizkiote, kitarra akustikoak, teklatuak edota xirula soinuak tartekatuz. Beraz, biharkorako sarrera lortu ahal izan duten heavy zaletuek programa bikoitzarekin gozatzeko aukera izango dute. B



Iced Earth talde iparramerikarra izango da alemaniarren teloneroa bihar.

arte). Argibideak eta izen-ematea: 943 76 15 40.

► Donostiako Udaleko Gazteria Saileko **Kontadores-Gaztegunak** 16-30 urte bitarteko gazteei zuzendutako arte espresio ikastaroak (antzerkia, gidoi-

gintza, argazkigintza, zinea, dantza... e.a.) antolatu ditu. Argibideak: 943 39 01 22.

LEHIAKETAK

► **"Dana lanbrotue ikustot"**, Mitxel

Sarasketaren omenezko argazki lehiaketa. Lanak (zuribeltzean zein koloretan) azaroaren 28ra arte jasoko dira Eibarko Arrate Kultur Elkartean (Zuloagatarren kalea, 3). Lehen hirurek sari bana jasoko dute.

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
Irala 1

DEIAK

► Jardunek astebukaerantantz Antzuolako Gazte Txokoan **gaztetxoekin lan egiteko begiraleak** behar ditu. Interesatuak bidali Curriculumaz azaroaren 6a baino lehen Kartzela Zaharrera. 943 76 36 61.

► **Jubilatuaren kultur hamabostaldia**

amaierako ekitaldia bihar, zapatua, 13:00ean Miguel Altuna Institutuan. Partaideak: Maria Jesus Aranburu Diputazioko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria eta Mikel Larrea eta Victoriano Gallastegi, Antzuola eta Bergarako alkateak. Aurretik 11:45etan meza izango da Milagrosa kapilan eta 14:30etan herri bazkaria Udal Biltegian.

► **Orfeoikide** izan direnen izenak emateko epea domekara arte zabalik Irrintzin edo Antxonin.

► **Odol ateraldia** eguaztenez hilak 4, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► Euskal Mendi Federakundeak deituta, **zentral eolikoaren kontrako akanpada** Karakate eta Atxolin bitartean, bihar zapatua, hilak 31. Irteera 15:00etan Azkoitia, Elgoibar eta Soralezeko plazetatik. Domekan, azaroak 1, Irukurutzeta-Karakate mendi ibilaldia egingo da.

OHARRAK

► Udalak jakinarazi nahi du **trasteak biltzeko kamioia** hileroko lehen eguaztenez pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira ohizko tokietan.

KINTADAK

► **1940**an jaiotakoaren afaria azaroaren 7an Antxonin jate-txean. Izen-ematea: 943 76 34 36 (Mari Tere) eta 943 76 45 75 (Begoña).

► **1947**an jaiotakoaren afaria azaroaren 7an Tartufo jate-txean, 21:00etan. Izen-ematea 943 76 35 51 zenbakian.

► **1951**n jaiotakoaren bazkaria azaroaren 14an Antxonin. Txartelak Antxonin bertan jaso daitezke 1.500 pezeta truke.

► **1995/96** ikasturtean UBI n ibilitakoaren afaria azaroaren 14an Antxonin. Egunean bertan Pol-Polen elkartuko dira, 19:30etan. Izen-ematea (1.000 pezeta-ko aurrerapena) Antxonin.

► **1927**an jaiotakoaren anaiarteko eguna azaroaren 15ean. Hildakoaren oroimenezko meza 13:00ean Santa Marinaran eta 14:30etan bazkaria Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezeta) Antxonin azaroaren 10a baino lehen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

Species II

Eguakitza: 22:30

Zapatua: 17:00, 19:30.

Frontera sur

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Paulie, el loro bocazas

Domeka: 11:30.

Laura

Eguna: 21:30.

ARRASATE. Alai zinema

Los visitantes regresan...

Eguakitza: 22:00.

Blade

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 17:00, 19:30, 22:00.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

El hombre que susurraba a los caballos

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 19:00, 22:15.

Domeka: 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:00, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 22:15.

EIBAR. Rialto

La sombra de la noche

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 22:15.

Domeka: 22:15.

Astelehena, ik. eguna: 22:15.

Siempre queda el amor

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00, 19:30.

ELORRIO. Arriola

Boogie nights/El condon asesino

Eguakitza: 22:30.

Seis dias, siete noches

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

AZKOITIA. Baztartzxo

Dr. Dolittle

Eguakitza: 22:00.

Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.

Astelehena: 20:00.

SPECIES II

Zuzendaria: Peter Medak.**Aktoreak:** Michael Madsen,

Natasha Henstridge.

Lehen zatiaren arrakastaren ondoren, Natasha Henstridge berriz ere piztia eta ederraren paperean. Martera joandako tripulazio bateko kideek, bueltan, azterketa mediko zehatza jasan beharko dute beraien gorputzetan alien bat egon daitekeela uste baitute misioaren arduradunek...

FRONTERA SUR

Zuzendaria: Gerardo Herrero.**Aktoreak:** Jose Coronado,

Maribel Verdu, Federico Luppi.

Donostiako Zinemaldian kritikak egurra eman zion. Horacio Vazquez-Rialen nobelaren oinarrituta, errealeismo majikoaren bidetik, 1880-1990 bitarteko Buenos Airesen girotzen da akzioa. Argentinara joandako emigrantei buruzko ikuspegia.

LAURA

Zuzendaria: Otto Preminger.**Aktoreak:** Gene Tierney,

Dana Andrews, Clifton Webb.

Forum Cinematographe taldeak, beharbada, Otto Preminger-en (*Rio sin retorno*, *Anatomia de un asesinato*) filmerik ezagunena antolatu du. Apartamentu batean emakume baten gorpua azaldu ondoren, McPherson detektibeak ikerketari ekingo dio eta lan horretan hipotesi asko jorratuko ditu, hiltzailea nor den benetan ezagutu arte... Indarra galdu ez duen klasiko bat ikusteko aukera.


BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

Eguneroko menuak,
parrilan egindako
erreki
bereziekin.



DANTZARAKO PISTA ETA GUZTI!

San Juan auzoa, Elgetako bidea, Bergara. Tf. 943 76 35 51.

Kintadak, koadrilak,
despedidak...
Taldeentzako
URBANO
antolatzen dugu

Domeketan
enkarguz bakarrik.

Jubilatuen Kultur Hamabostaldiaren barruan, Gonzalo Berzosa gerontologoak "Boluntario lana, pauso bat gehiago emateko aukera" izenburuko hitzaldia eman zuen martitzenean Miguel Altuna institutuan. Jubilazioan aktibo jarraitzeko bideak jorratu zituen eta, amaieran jasotako txalo zaparrada ikusita, aretoa betetzen zuten entzuleak erabat konbentzitu zituen.

G. Zer eskaini diezaiokete jubilatuak gizarteari?

E. Gaur egun, zorionez, osasunez eta baliabide sozial eta autonomia handiarekin zahartzen da jendea. Osasuna eta astia daukate jubilatuak eta, hortik abiatuta, asko daukate gizarteari emateko eta aktibo jarraitzeko. Lan hori hiru esparrutara bideratu daiteke: familiara, alde batetik (ilobekiko harremana sendotuz esate baterako, aiton-amonak eta iloben arteko lotura oso berezia izaten baita), gobernu kanpoko erakundeetara bestetik (boluntario lanean gazteekin lan egiteko aukera hor dago), eta, azkenik, beraien arteko harremanetara, jubilatuen elkartean lan eginez eta beste jende bati laguntza eskainiz.

G. Gaurko gizartea lan hori jasotzeko gertu dago?

E. Gizarteak ere aldatu beharra dauka, errezelo asko dagoelako. Jendeak edadetuen gaineko ideia okerrak ditu: umore txarrekoak eta goibelak direla. Hori ez da horrela. Beren esperientzia eta lana eskaintzeko prest daudenak asko dira eta gizarteak parte hartzeko aukera eman behar die. Hori da erronka. Era berean, belaunaldien arteko elkarrikeria areagotu behar da.

GONZALO BERZOSA
Gerontologoa

"Osasunez, baliabide sozialekin eta autonomiarekin zahartzen da jendea"



Donostiarra izatez, Madrilako Komunitatean lanean ari da Gonzalo Berzosa.

G. Boluntario lanaren komenigarritasuna aipatu duzu hitzaldian. Zelako lana egin daiteke?

E. Elkarte batean lan egitean, taldean lan egiteko aukera dago eta helburua beste batzuei laguntza eskaintzea da, inolako sari ekonomikorik gabe. Gizartean dauden behar sozialak, ekonomikoak edota osasu-

"Eperientzia eta lana eskaintzeko prest dauden jubilatuak asko dira eta gizarteak parte hartzeko aukera eman behar die"

nekoak bete ditzakete. Lan horrek, dudarik gabe, estimulazioa emango die eta euren denbora beste jende batekin konpartituz, harremanak sendotzen dira. Euskal Autonomi Elkartearen badago boluntario lanari buruzko legea eta gobernuak gero eta gehiago bultzatzen dituzte solidaritate eta boluntario sareak. Lan hori egiteak autonomia eta nortasun bat ematen die jubilatuak eta oraindik ere gizartearentzat probetxugarriak direla ikusten dute.

G. Kontua aktibitateari eustea da...

E. Bai, inmovilismo fisiko, mental, afektibo eta sozialari aurre egin behar zaio eta horretarako aktibitatea, interesa, partehartzea edota erlazioak landu behar dira. Bestela pasibitatean, gogaitasunean, bakardadean edota geldotasunean erortzeko arriskua dago. Gainera, hori gertatuz gero, beti gaisotasunen batekin lotuta agertzen da, izan ere, denbora guztia geure buruari begira ematen dugu. Zerbaitetan gabiltzanean, ostera, haiek guztiak ahaztu egiten ditugu.

G. Hitzaldian emakumeak nagusi izan dira. Gizonak baino aktiboagoak dira?

E. Egia da emakumeak gehiago entregatzen dela. Gizonak nahikoa lan egin duela uste izaten du eta normalean jubilatuakoa nahiago du lagunekin irten eta kontu hauek ahaztu. Baina emakumeek, familiari dedikatuta, gutxiago irten direnez, seme-alabak alde egindakoan aktibo jarraitzeko gogoia izaten dute. Dena den, hori aldatuz joango da eta gizonak hasiko dira prozesu horretan murgiltzen. XXI. mendean edadetu asko izango dira eta erronka nagusia aktibo jarraitzeko plataforma asmatzea da. B

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

■ **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).**

943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGOA Sabin**

(Granjako animaliak). Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47

■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL**

J. Alberto. Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88 • **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 •

IRIARTE Idoia. Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIANDIA Cristina.** Ramon Maria

Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren**

(Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71 ■ **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK:**

AGIRREZABAL Jose Jabier. Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni

Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni

Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Barrenkalea 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.**

Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64

■ **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA**

ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita**

(Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76



Elosuko Labeaga baseritik Agarreburuko antenara doan kaminoa zuloz eta sasiz beteta dago.

Agarrebururako kaminoa konpontzeko zain dago Udala Eusko Jaurlaritzari dagokio errepidea konpontzea

Bergarako Udaleko Gobernu Batzordeak Labeaga baserrik Agarreburuko antenara doan bidea konpontzeko eskaria egin dio Eusko Jaurlaritzari eta Euskalnet enpresa publikoari. Errepide zati hori oso egoera kaskarrean dago: zoruan zulo ugari dago eta kamino bazterrak sasiz beteta daude. Elosuko auzokideek eta inguru horretara hurbiltzen diren hainbat herritarrek sarritan salatu dute bidearen

egoera kaskarra eta Bergarako Udalak lehen bait lehen irtenbide bat topatu nahi dio arazoari. Alkateak lehenago ere egin ditu hainbat jesticio baina ez du erantzunik jaso Jaurlaritzaren aldetik.

Agarreburun dagoen telekomunikazio sistemaren arduraduna Eusko Jaurlaritzako Barne Saila da, baina azken urteotan ez du antenarako bidea konpondu. Joseba Aizpurua Udaleko ne-

kazal teknikariak bidea konpontzeko txostena landu du. Bere hitzetan, "nire kalkuluen arabera obrak 12 milioi pezeta inguruko kostua izan dezake eta Udalak obra subsidiarioki bere gain hartu eta kostuak Jaurlaritzari pasa diezaioke, baina lehenengo Jaurlaritzak erantzun bat emateko zain gauden".

Erantzunaren zain, Udaleko Gobernu Batzordeak eskaria egin du. B

Etxanizen aldeko manifestazio isila datorren zapatuan

Jose Mari Etxaniz

askatzea eskatzeko manifestazio isila egingo da datorren zapatuan, hilak 7, eguerdiko 12:00etan San Martin plazatik iritenda. 18 urte pasa kartzelan daraman preso bergararraren aldeko Herri Plataformak antolatuko du manifestazioa eta Bergarako Udalak eta alderdi politiko, sindikatu, erakunde eta elkarte hauek bultzatu dute: EAJ, EA, HB, Zutik, ELA, LAB, Ezker Sindikala, EHNE, Elkarri, Komite Internazionalistak, Eguzki, Eki eta beste hainbat kultura elkarte, gastronomiko e.a.

Jose Mari Etxaniz 1980ko Karnabal martitzenean atxilotu zuten. Harrez gero, estatuko hainbat kartzelan eduki dute eta azken urteotan Puerto de Santa Marian (Cadiz) dago. Kondanaren hiru laurdenak beteak ditu eta indarrean dagoen legearen arabera 1995ean kaleratu behar zuten. Etxanizen sumarioan ez dago odol delitirik.

Bere aldeko plataformak deia egin die herritar gutzietan manifestazioan parte hartzeko.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA



gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

Diputatu Nagusia UNEDeko ikasturtearen hasiera ekitaldian

Bergarako UNEDek 1998-99 ikasturte akademikoari hasiera ofiziala emango dio gaur, eguakitza, 19:00etan ikastetxearen areto nagusian egingo den ekitaldian.

Bertan, Juan Jose Alvarez Bergarako UNEDeko zuzendaria eta Roman Sodupe Gipuzkoako Diputatu nagusia eta Bergarako UNED Ikastetxe Elkartuaren Patronatuko Lehendakaria izango dira.

Ekitaldi akademikoan, "Eskubide historikoen gaurkotzea" gaiaren inguruan jardungo du Jon Arrieta Alberdi EHuko Zuzenbide Fakultateko irakasleak. Bestalde, iaz lizentziatura ikasketak bukatu zituzten ikasleei diplomak banatuko zaizkie eta amaieran, Wonder Brass Quintet taldearen eta Umorre Ona abesbatzaren emaldiak izango dira.

Ikasturte berrirako matrikulazio epea oraindik zabalik badago ere, aurreko kurtsoa ikasle kopuruaren inguruan ibiliko direla aurreikusi du Bergarako UNEDeko zuzendariak eta, beraz, 1.500 bat ikaslek ikasiko dute araututako ikasgaietan.

Bergarako UNED Gipuzkoako urrutikako unibertsitate

tate bakarra izango da, Iruenen eta Errenterian era honetako ikastetxe bat jartzeko aukera baztertu baitzuten orain dela hilabete batzuk Madrileko UNEDek eta Patronatuak. Halere, herri horietan gela birtualen bat ipini eta klase batzuk bideo konferentziaren bitartez hartzeko posibilitatea azterzen ari dira.

Horretaz gain, aurten Bergarako UNEDen informatika arloan inbertsioak egitea aurreikusi dute, posta elektronikoen bitartez ikasle eta irakasleen arteko harremanak erraztuko direlakoan.

Oraindik onartzeke badago ere, ikasturte berrirako aurrekontua 120 milioi pezetakoa da. Horietatik 45 milioi errekurso propioetatik hartzen ditu UNEDek eta gainontzeko 75 milioiak Patronatuko kideek ematen dute: Gipuzkoako Diputazioak 47 milioi pezeta, Kutxak 20 eta Bergarako Udalak ia 8 milioi. Amaitzeko, esan dezagun, urrutikako unibertsitateak eskaintzen dituen aukeren berri emateko publizitate kanpaina egingo dutela aurten. Kanpaina unibertsitateko joateko adinean dauden ikasleei zuzenduko zaie. **B**



Gaur, eguakitza, emango zaio hasiera ofiziala UNEDeko ikasturte berriari.

Trena Epeletik joatea eta Deba Garairako apeadero bat eskatuko du Mankomunitateak

Abiadura Handiko

Trenaren trazatuari hainbat alegazio aurkeztuko dizkio Deba Garaiko Mankomunitateak. Jaurilaritzako Garraio eta Herrilan Sailean alegazioak aurkezteko epea bihar, zapatua, amaitzen da eta Mankomunitateak Deba Garaian apeadero bat jartzeko egin beharreko azterketak egin ditzala eskatuko dio Garraio eta Herrilan Sailari. Bestalde, Angiozarko trazatuaren ordez, Epelekoa proposatzen du Mankomunitateak. LKS enpresak egindako txostenean oinarritzen da Mankomunitatea Epeleko alternatiba proposatzeko. Honenbestez, Mankomunitateak eta Bergarako Udalak bat egin dute gai honetan eta biek alegazio berdina aurkeztuko dute.

Bestalde, Angiozarko Bailarako Batzordeak trena Angiozarko bailaratik egitearen kontra azaldu diren 3.400 lagun firmak eta trazatua Epeletik egiteko eskaera jasotzen dituen alegazioak aurkeztu ditu Jaurilaritzan.

CAMACHO
Drogeria Usaindegia
Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35


LASA
Jatetxea
OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29


Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Berrigara

341 zenbakia.
1998ko urriaren 30a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E.mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: **JARDUN Elkarte**

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereizabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop.
Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Amaia Labaien.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).

EH AURRERA!

Idatzi honen bidez Euskal Herritarrok (EH) hautesle elkarteak eskerrak eta zorionak eman nahi dizkie botoa eman dien bergarar guztiei. Ezker Abertzaleak, HBren bitartez, inoiz lortu duen botu kopururik handiena jaso du (3.011 boto lortu genituen 1986. urtean udal hauteskundeetan).

Igoera honen arrazoiak asko izan daitezke, baina nabarmenak honako hauek:

PPren estrategia likidazionista (urtebeteko epean egindako HBko Mahai Nazionalaren kartzelaratzea, asmatutako "sare finantzieroa" aitzakia bezala jarritz, KASEko zenbait partaideren espetxeratzea, Eginen aurkako operazioa...).

EHren sorrera. HBren ilegalizazioa erabakita zegoenean EHren sorrerak bertan behera uzten ditu PPren planak eta erabakiak. Proiektu berri honek sekulako ilusio eta espektatibak sortzen ditu (ezkerreko sektore eta aurrera-koikiak diren sektore ezberdinetan).

Lizarrako akordioa. Akordioaren sinatzaileak irekitako bideak gatazka konponbidean jarri leza-keela dirudi.

ETA erakunde armatuaren su-etena.

Lortu ditugun emaitzak oso onak izan dira era berean, PNV eta EA alderdi abertzaleentzat, nahiz eta azken hauek boto ba-

tzuk galdu. Kezkagarria PSOE eta PP alderdi espanyolista-inmobilitzen igoera. Oso kanpaina zikina egin dute (maleten kontua eta abar). Hala eta guztiz ere, gure herrian garbi dago Lizarrako Akordioa sinatu zuten alderdiak nagusi direla. Hau pozgarria izanda ere, gure buruetan hausnar-keta sakon bat egin beharrea aurkitzen gara. 1995.eko udal hauteskundeetako emaitzak kontutan hartuta HB bigarren indarra izan zen (2.861 boto eta 7 zinegotzi). PNV, EA eta PSOEek tripartito formula aplikatu eta HBko 7 zinegotziak guztiz baztertu zituzten gobernu organo guztietatik. Legealdia bukatzeko 7 hilabete falta direnean hasierakoan gaude. Hiru urte eta erdi hauek oso gogor-rrak izan dira gure ordezkari-entzat, autoritarismoa eta inposizioa eguneroko ogia izan dira.

Lizarrako Akordioa eta gero, irailako ohiko Plenoan, HBko zinegotziek PNV eta EARI beraienganako jarrera aldatu eta egoera berri bat sortu zezatela eskatu zuten. Oraindik erantzunik ez dago baina egoera hau aldatu dadin elementu berri bat sortu da, EHk (EH eta HBren proiektu politikoa berdina da), herritarren aldetik sekulako babesba jaso du (3.334). Errealitate honi ezin zaio bizkarra eman, ez dago aitzakiarik. PNV eta EAKo zuzendaritzei jarrera aldatzea garbia eskatzen diegu. Telesforo Monzonen hitzak gogora ekarritz "Maltzagarako bidea elka-

rrekin egin behar dugu" eta momentuz zoritxarrez Mekolalderai- no ere ezin gara elkarrekin joan.

Bergarako Herri Batasuna

LAGUN BATI

Kaixo Ani. Aste batzutatik hona amets-gaizto batean murgilduta gaudela iruditzen zaigu, izan ere gogorra da zu bezalako lagun bati agur egitea.

Gutariko batzuk, hamarkada oso batean, zurekin oso une gozoak igarotzeko zortea izan du- gu. Beste batzuk denbora labur- ragoan ezagutu zaitugu eta, az- kenik, beste batzuk zure ondoan egin gara profesional.

Baina denok ikusi dugu zure eta gure arteko txoko hau (gim- nasioa) aurrera ateratzeko egin duzun ahalegina eta oso ondo ulertzen dugu horren eskerrik ez jasotzeak sortzen dizun nahiga- bea. Guzti horregatik, une mingar- ri hauetan, bat egiten dugu zure- kin, eta bihotz-bihotzez esker- tzen dizugu klase bakoitzean eta gurekin igarotako une bakoitze- an eskaini diguzun maitasuna, konfidantza eta berotasuna.

Eskerrik asko Ani eta gogora- tu ezazu beti, zure lagunek eta zure ikasleek ez zaitugula inoiz ahaztuko.

Zure lagun eta ikasleak

tira biraka: alex ugalde



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Hauteskundeen ondoren, zelako gobernua osatzea nahiko zenuke?



Marcos Alonso

Ez dut kontua gehiegi jarraitu, baina badirudi EHk eta PPK izan dutela gorakadarik handiena. EAJk bietako batekin paktatzea izango litzateke lojikoena.



Pilar Barrero

Aurreneko laupabost alderdien arteko koalizio bat egotea nahiko nuke, oreka piskat egoteko. Hala ere, kanpoko alderdietako bat ez zait gustatzen.



Juan Carlos Nieto

Badirudi bi frente daudela eta bien arteko aldea nabaria da. EAJk bideetako bat aukeratu beharko du. Bloke abertzalea probatzea ondo ikusten dut.



Inma Kortabarria

Euskal abertzaleek bat egitea ondo ikusten dut, gauzak ondo joan daitezke-ela uste dut. Lizarrako alderdiak egon litezke, Ezker Batua ere bai.



Jose Maria Gallego

Euskal alderdien arteko paktoa gauzatzea gustatuko litzaidake, hau da, EAJ, EH eta EA gobernuan egotea. Gure onerako izango litzateke horrelako gobernua.



Vicente Iturrikastillo

Orain arteko borrokan ezin dugu jarraitu, gauzak konpondu beharra dago eta, ahal bada, abertzaleen arteko gobernua osatzea ondo ikusten dut.

Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

Imanol Larrañagak deitu digu aste honetan BERRIGARATA, berak esaten digunez urteroko kontu bategatik. Imanol eta lagun batzuk Behobia-Donostia lasterketa gertatzeko entrenatzen ibiltzen dira irailetik hona. Askotan trenbide zaharretik entrenatzen dute eta sail honen bitartez trenbidea egoera txarrean egotea salatu nahi du Imanolek. Lurrean zulo handiak egoteaz gain, ez dago batere argiztatua. Inguru horretan egoten den korrikalari kopurua kontutan izanda, Udalariz erabakitako egiteko ordua badela esan nahi dio. Politikariek kirola egiteko gomendatzen badiete gazteei, eurak jar ditzate-la medio egokiak.

■ ikuspuntua: **ainhoa altuna**

Iñok zigortu nahi ez

Ordezko Zerbitzu Soziala (PSS) ez eixia ondok be delitua dala eta, ondorioz, zigor penala daukala badakigu. Gartzelaz zigortzen zan jarduera hori, 1995eko bukaerako Kode Penal berrixan 8-12 urteko inhabilitaziñuaz eta multaz zigortzen da.

Astelehenian Donostiako Audientzian insumiso baten epailetan absoluziñuan tesisa gogor mantentzeko gertu banengan be, eszenarixoko berri baten aurrian aurkitu giñan: Fiskalak (Akusaziño publikuak) goiz horretan zeren bosbasei juiiziotako akusaziñua erretirau ze-



bertan etorri leike Madriletik ordena berriz be akusaziñua mantendu eta inhabilitaziñua eskatzeko. Baña argi daona da Egunkarian agertu zan moduan, iñok zigortu nahi ez daben delitua dala. Horren adibide da baitxa aurtengo maiatzian Iruñako Audientziak napar insumiso

ban eta, jakiña, akusaziño barik eztago zigorrik. Donostiako Audientzian itxuria Otubre hasieratik agertu dan jarrera berri hau noiz arte mantenduko dan iñok ez daki; bihar

bat absolbidu zabanian, zerbitzu militarra 2002. urtian kenduko dabela jakinda, mutilek dauken obligaziño hori egun relatibizauta aurkitzen dalakuan. Beti esan izan da legia errealidade sozialan atzetik juaten dala eta ez alrebes, komeniko zan bezala. Gai honetan be halaxe gertatzen da eta legia aplikau biadaben operadoriak bidetxurak topatzen saiatzen die, gaisotasunan gaiñeko erremedixua kaltiaua izan ez dadiñ. Lastima da Kode Penal berrixa jorrau zanian insumisiñua despenalizatzeko zauken aukeria aprobetxau ez izana. Ez giñake inseguridade honekin ibiliko. Errezatzen dot Donostian nobienbre hasieran daukaten jui-ziorako fiskalen irizpidia ez aldatzia... B

■ asteko menua: **osintxu asadorea**

Rapea labean



KOLDO ARRUTI
eta NATALIA TENA
Osintxu asadorekoak

OSAGAIAK (2 lagunentzat)

- Kilo eta erdi rape garbia
- Gatza
- 3 ale berakatz
- Oliba olioa
- Perrexil apur bat
- Ozpina

PRESTAKETA

- Labea 5 minutu inguru berotzen ipini.
- Rapeari bi aldeetatik gatza bota.
- Berakatz txikitu eta rapea bi aldeetatik igurtzi.
- Rapea labean sartu aurretik ontzi batean jarri eta pare bat txorrotada olio bota.
- Labean sartu eta 23 minutu inguru eduki su bizian.
- Rapea labetik atera eta aizto batekin hezur inguruan pixkat zabaldu, gainetik botako dugun olio errea ondo hartu dezan. Ondoren, ozpin txorrotada bat bota.
- Zartagin batean olio berotzen ipini, berakatz txikitua bota eta pixkat gorritutakoan perrexil txikitu apur bat gehitu; segituan, olio errea rape gainera bota.

■ adituen esanetan

Gizentasuna

IT'ZIAR RICO, *medikua*

Biztanlegoaren %40 inguruk gizentasun arazoak ditu. Pisu egokian gauden kalkulatzeko bada formula bat: pisua kilotan zati altura metrotan ber bi. Adibidez 1,75eko altuera eta 73ko pisua duen gizon batek, 23,8ko gorputzeko masa-indizea dauka (73/1,75²). Gizonezkoen kasuan kopuru hori 25 baino gutxiagokoa izatea komeni da eta emakumezkoetan, berriz, 27tik beherakoa. Kopuru hori 30era bitartekoa bada komeni baino pisu gehiagokoa da eta 30etik gora gizentasun arazoaz hitzegun daiteke. Gizentasunarekin bihotzeko gaitzak, kolesterol arazoak, hipertentsioa, diabetesa edota

arazo psikikoak lotzen dira askotan. Hasiera batean gizentasuna herentzia-koa izan zitekeela uste zen baina jateko ohiturak dira gizentasunarekin eragin zuzena dutenak.

Haurtzarotik jasaten den gizentasuna tratatzeko zailagoa izaten da. Hasiere kilo batzuk galtzea ez da zaila izaten baina pisu egokia mantentzea bai, azken batean ordurarteko ohiturak guztiz aldatu beharra izaten delako. Txikitatik pediatrek jateko ohitura osasuntsuak izatea gomendatzen dute, gozokiak eta gozogintza industrialak baztertuz. Beti ere dieta orekatu bat mantendu behar da. B

■ bergarako gordailutik

MANDOBIDEA

Imanol Sorondo

Behin idatzi nuen BERRIGARAN orain 200 urte inguru egin ziren bideez. Baina

haiek oso "berriak" ziren gaurkoan aipatuko ditugun ondoan. "Mandobide" izenarekin ezagutzen ditugu, zabalak dira, mendietan zehar gainez gain gorabehera gutxirekin ibiltzen dira, joan-etorrerako errazago eta motzago izateko; hortik sortu da "eutsi goiari" esaera.

Gure mandobide hau Azaldititik hasi eta Azkarraga (Deskarga), Trekutz, Gorla, Pol-Pol eta Itxasaldera ibiltzen zen, gaur bertan egin litekeen bezala. Hain zuzen, Pol-Polera goazela eta Zelaiandiko inguruetan bada toki bat "Mandobide" izenekoa.

Noizkoak ote antzinako bide hauek? Zaila da zehatz jakitea; artzaintza garaikoak, diotenez; baina bere bazter eta inguruetan trikuarri eta hobiuneak izaten dira; gure honetan, adibidez, Jentiletzekoa, Trekutzekoa, Irukurutzetakoak eta abar daude. Artalde, korta eta txabolen tokiak dira: Elosuko eta Antzuolako baserrien ardi kopuruak 5.000koa izango zen orain 60-70 urte. Jaiak ere ospatzen ziren mandobidearen bazterretan: Pentekosteko peria Iturriberrian egiten zen Bergarako kalean 1727.ean hasi baino lehenago; Korpuseko zortziurrenean Pagomendin jaialdia egiten zen, eta ez dakit zer egunetan, Miakan ere bai erromeria. Mandobide honetako inguruan jentilak bizi omen ziren eta ipuin eta esaera zaharrez josita dago. Diotenez, Euskal Herrian ba omen dira lurpean gordetako altxorak. Adibide gisa ipiniko dugu honako hau, Laskuraingo Juan Kruz artzainak esan zidanez, hiru anaia omen ziren eta behin lurpean hilobiratu-tako eta urrez zamaturiko mando bat aurkitu omen zuten mandobide honetan. B

Kilometroak Txiki 98

Pertxa elkartekok Kilometroak txiki ospatuko dute domekan, azken urteotako ohiturari eutsiz. Goizeko 10:00etarako iragarri da irteera Semi-

narioko patiotik eta 1991. urtean Kilometroak Bergaran izan zenean egin zen ibilbidea egingo dute, San Martzialen eta Zurragan atsedendia eginez. 14:30etan babajana izango dute Pertxan. 1991n Kilometroak festa Bergaran egin zenean Pertxakoez ezin izan zuten ibilbidea egin, lanean aritu zirelako. Hori dela eta, urte berean, azaroaren 1ean, Kilometroak txiki egin zuten eta, harrezkero, urtero ospatu dute festa.

Misiolari baten esperientziak

Urtero egiten den solidaritate kanpainaren barruan, **Mari Arrazola** Iruneko misiolariak bere esperientziak azaldu zizkien Mariaren Lagundiko ikasleei martitzenean. Mari Arrazola 40 urtez egonda misiolari Zairen eta ikasleek interes handiz jarraitu zituzten Marik Afrika beltzean bizi izandakoak. Aurtan, gainera, **50 urte betetzen dira Mariaren Lagundia konpainiak Afrikako misioei ekin zientetik**. Argazkian, Marik martitzenean eman zuen bitzaldietako baten irudia.



Bergara eta Realak


Aurtengo denboraldirako Realak kaleratuko duen ohizko **poster ofizialean Bergarako argazkiren bat** agertuko da. Iaz Zarautz izan zen aukeratutako herria eta aurtan Bergarari tokatu zaio. Realak kontraturiko argazkilariak Bergaran egonak dira jadanik eta egunotan posterra lantzen ari dira. Orain-

dik ez dute erabaki herriko zein txoko agertuko den jokalariren atzealdean. Guztira, **60.000 kopia** inguru aterako dira eta abenduaren hasieran posterraren aurkezpena egingo da Bergaran. Ea txuri-urdinek denboraldi bikaina egiten duten Bergararen izena ahalik eta gehien zabaltzeko...

Orain dela lau urte baino 1.500 boto gehiago zenbatu ziren domekan

Parte hartzea handia izanda ere, 1984ko autonomikoetan handiagoa

Domekako emaitzen ondoren, era askotako interpretazio eta analisiak egin dira. Parte hartzea azken bozketetako handiena izan da eta horrek eragin du indar politiko batzuren hazkundera, bereziki EH, EAJ eta PPre-na.



Domekako hauteskundeak normaltasun osoz burutu ziren Bergaran.

Aztertu dezagun, domekako datuen arabera, indar politiko bakoitzaren joera.

Gora egin dutenak

EHk 3.334 boto lortu zituen domekan, HBk aurreko bozketetan inoiz lortu ez duen kopurua. 1994ko autonomikoekiko 885 boto irabazi ditu eta 1996ko orokorreko 1.090.

EAJ bigarren indarra izatera pasatu da, baina honek ere gora egin du nabarmen, 2.787 boto lortuz, 1994ko autonomikoetan baino 542 boto gehiago eta azken

bozketetan baino 228 gehiago.

PPk 1984ko hauteskunde autonomikoetatik gorako joera erakutsi du: orduan 183 boto lortu zituen eta do-

mekan, berriz, 768. Bestalde, orain dela lau urteko autonomikoekiko 332 boto gehiago lortu ditu.

PSE-EE antzera samar

PSE-EEK aurreko autonomikoen aldean bototan gora egin badu ere, parte hartzea handia izan dela kontutan hartuz, igoera ez da oso nabarmena izan, 66 boto gehiago lortu baititu. Gainera, portzentaiari begiraturaz gero, behera egin du: domekan %9,2 lortu zuen eta orain dela lau urte, berriz, %10,1.


EAK eta IU-EBk behera

EAK orain dela lau urteko autonomikoekiko behe-

Hauteskunde autonomikoak 98 Bergaran. Datuak zonaldeka

	Hautesle erroldea		Abstentzioa		EH Euskal Herritarrok		EAJ PNV		EA		PSE-EE EUSKADIKO EKINERRA PSOE		PP		Batzok ia		Beste batzuk	
	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998	1994	1998
Erdialdea	5.574	5.925	%34,4	%24,8	1.036	1.481	1.100	1.389	697	697	297	342	241	360	198	128	14	7
Matxiategi	3.499	3.294	%41,4	%27,6	680	847	548	676	305	260	283	285	105	207	104	67	9	6
Martoko	1.966	2.191	%42,6	%29,5	318	533	291	375	146	174	182	195	63	160	100	86	4	9
Ibarra	1.053	987	%41,6	%29,0	272	311	182	213	97	88	21	31	15	33	22	14	0	1
Osintxu	562	515	%36,4	%31,3	143	162	124	134	49	29	13	9	12	8	11	10	0	0
GUZTIRA	12.654	12.912	%38,7	%26,9	2.449	3.334	2.245	2.787	1.294	1.248	796	862	436	768	435	305	27	23

Bergarako boto banaketa azken hauteskundeetan



ra egin du, baina ez du boto gehiegirik galdu, 46 boto bakarrik. Halere, %3,2 puntu behera egin du eta hori, parte-hartze handia izan dela kontutan izanda. Esan behar da, bestalde, orain dela bi urteko orokorretan galdutako hirugarren postua berreskuratu duela; PSE-EE laugarren indarra izatera pasatu da.

IU-EBk 1994ko autonomikoetan (435 boto) eta, batez ere, 1996ko orokorretan (480 boto) lortu zituen emaitzarik onenak. Domekako bozketetan, berriz, behera egin zuen nabarmen, aurreko autonomikoekiko 130 boto galduz.

Abertzaleak eta estatu mailakoak

Indar politiko abertzaleek 7.369 boto (%79) batu dituzte, orain dela lau urteko autonomikoetan baino 1.381 gehiago. Estatalistek, berriz, 1.935 boto (%21), orain dela lau urte baino 268 gehiago. Euskal Autonomi Elkartearen indar politiko abertzaleek botoen %55,1 eskuratu dituzte, guztira 679.522 boto (41 eserleku Legebiltzarrean). Estatu mailakoek eta foralisten, be-

rriz, 484.911 boto (34 eserleku).

Lizarra-Garazikoak eta estatu mailakoak

Lizarra-Garaziko ituna sinatu zutenek 7.674 boto (%82,2) lortu dituzte, aurreko autonomikoetan baino 1.251 boto gehiago. Sinatu ez zutenek, ostera, 1.630 (%18,8), orain dela lau urte baino 398 gehiago. Euskal Autonomi Elkartearen Lizarra-Garaziko Akordioak alderdiek botoen %60,7 eskuratu zituzten domekan, guztira 750.357 boto (43 eserleku Legebiltzarrean).

Parte hartze handia

Domekako bozketak laga digun datu adierazgarrietako bat, izan zen parte-hartze handia da. 12.912 bergararrek zuten botoa emateko eskubidea eta 9.327 boto zenbatu ziren. Hortaz, esan dezakegu parte-hartzea %73koa izan zela, Euskal Autonomi Elkartearen baino hiru puntu gehiago, edo beste era batera esanda, abstentzioa %27koa izan zela. Halere, 1986ko hauteskunde autonomikoetan abstentzioa oraindik ere txikia-

goa izan zen Bergaran: %23,5. Orain dela lau urtekoetan, %38,7koa izan zen eta orain dela bi urteko orokorretan, ostera, %31,1ean geratu zen.

Udal hauteskundeak izango balira

Domekako bozketen emaitzak hartu eta D'ont legea aplikatuko bagenu, EAJk zinegotzi bat galduko luke PPren mesedetan. Beste guztiek orain dituztenei eutsiko liekete. Honela osatuko litzateke Udaltzatea: EHk 7 zinegotzi, EAJk 6, EAk 2 eta PSE-EEK eta PPK bana. Esan behar da orain

dela lau urteko hauteskunde autonomikoetako emaitzak hartuz gero, PPK eta IU-EBk zinegotzi bana izango litzuketela Bergarako Udalean, baina 1995ean egin ziren Udal hauteskundeetan ez zuten zinegotzirik lortu.


Bozketak ezberdinak izaten dira eta bakoitzak bere berezitasuna izaten du. Udalekoetan, batez ere, hautagaia zein den kontutan hartzen dute boto emaleek eta hautagaien eta herritarren arteko hurbiltasunak erabateko garrantzia izan ohi du.

Tripartitoak alkatetzari eutsi

Domekako datuak kontutan hartuz, Bergarako Udalean gobernatzeko duen hirukoak erabateko gehiengo izango luke. EAJ, EA eta PSE-EEK 9 zinegotzi izango litzukete (orain baino bat gutxiago) eta EH eta PPK zortzi. EH indar botatuena izan arren oposizioan egonko litzateke.

Ikusteko dago, halere, Gasteizko gobernuan hirukoak jarraituko duen ala ez eta Lizarra-Garaziko akordioaren ondoren, EAJ eta EAk zelako jarrera izango duten EHrekin Udalean. B

Hauteskunde autonomikoak 98 Bergaran





Domusantu eguna

Inoiz baino bisitari gehiago egunotan kanposantuan

Urtero bezala kanposantuak bisitari asko izango ditu domekan, Domusantu egunean. Azaroaren lehendabiziko eguna hildakoak gogoratzeko eguna izaten da eta egunotan kanposantua ohi baino gehiago txukuntzeko lanetan izan dira bertako langileak. Era berean, hildakoen senideak loreak eta bestelako apaingarriak eramaten hasiak dira.

Luisi Dominguezek 20 urte daramatza enterradore lanetan. Bere lesanetan, "azaroaren 1a hurbiltzen denean beti nabaritzen da mugimendu gehiago, baina hona urte gutzian dator jendea. Eguneroko etortzen den jendea ere bada. Sekula huts egiten ez duten 40 bat lagun izango dira eta ez pentsa emakumeak bakarrik etortzen direnik, beste horrenbeste gizonak izaten dira eta. Askok Mekolalde aldera egiten duten pasioa aprobetxatzen dute gero hona etortzeko, bisitaxo bat egiteko". Luisirekin batera Benito Davilak egiten du lan kanposantuan. Eguneroko egoten da zabalik, astebarruan 9:30etatik 18:00etara, zapatuan 10:00etatik 18:00etara eta jaiegunetan

12:00etatik 15:00etara. Domekan, Domusantu egunean, 8:00etatik izango da zabalik, egun horretan eta bezperan ohi baino jende gehiago joaten baita.

Errausketak gora

Matxiategiko kanposantua 1855. urtekoa da eta garai batean toki falta egon bazen ere, gaur egungo egoera bestelakoa da. Luisik azaldu digunez, "gorpuak 10 urtez egoten dira kanposantuan eta egia da duela urte batzuk nahiko justu ibiltzen ginela. Dena den, gaur egun gero eta errausketa gehiago egoten dira eta, beraz, hemendik 10 bat urtera lekua sobran izango dugula uste dut. Joan zen urtean 17 errausketa egin

ziren eta aurten, urtea amaitu baino lehen, kopurua bera da. Jendeak onartutako gauza bat da eta horrek espazioaren arazoa saihesten digu". Luisik emandako datuen arabera, 1970eko urtariletik hona 3.431 lagun lurperatu dira Matxiategiko kanposantuan. Bertan, 700 hilobi, 191 nitxo eta 220 panteoi daude gaur egun. Luisiren hitzetan enterradorearena ez da jendeak uste bezain ofizio gogorra; "askok komentatzen didate zorazuta ere ez liratekeela etorriko hona lanera, nahiago luketela langabezian egon hemen lan egin baino. Baina ez da horrenbesteko. Azken batean, lanbide guztiekin gertatzen den moduan, behin ohitura hartuz gero, ez dago inolako arazorik. Jakina,

egun batzuk beste batzuk baino gogoragoak gertatzen dira, eguraldiak laguntzen ez duenean adibidez”.

1990ean Udalak kanposantu berria eraikitzeko obren adjudikaziorako lehiaketa deitu zuen. Guztira, sei proiektu aurkeztu ziren lehiaketara eta Udalak Martin Azkarate arkitekto bergarrak Joan Arias i Roig katalanarekin batera landutako proiektua aukeratu zuen. Proiektu hartan kanposantu berria San Martzialera bidean, San Joxepe baserriaren inguruan, kokatzen zen. Zortzi urte pasatu dira ordutik eta badi-rudi asmo hura guztiz baztertuta dagoela. Luisi enterradorearen ustetan, “kanposantua ondo dago dagoen tokian eta ez dut uste berria egingo denik, espazioaren arazoa guztiz gainduta dago eta”.

Zerbitzu defizitarioa

Kanposantukoa zerbitzu defizitarioa dugu eta Udaltzarak kanposantuko zerga %10ean igotzea erabaki zuen


Luisi Dominguez bergarrak 20 urte daramatza enterradore lanetan. Eguaztenean ateratako argazkian, Domusantu egunari begira, panteoi bat txukuntzeko lanetan ikus dezakezue.



**Matxiategiko
kanposantuko zerbitzua
defizitarioa dugu eta
Udaltzarak kanposantuko
zerga %10 igotzea
erabaki zuen
aurreko astean**

aurreko astean. Igoera handienetakoa ezarriko zaio kanposantuko zergari (tasa gehienak %2,1 igoko dira) baina herriar gehienek, zerbitzua aseguru etxeren bitartez kontratatuta dutene, hauek izango dira neurri handi batean igoerari aurre egin beharko diotenak. Kontua da hiltzea, ingurukoentzat zorigaitz handia izateaz gain, garestia ere badela. Asegurua kontratatuta izanez gero, gutxienez 200.000 pezeta gastatzen dira batez beste; bestela, 400.000 pezeta inguru. Hortik aurrera, kopuru horrek nabarmen gora egin dezake interesdunek egin nahi dituzten gastuen arabera.

Esan bezala, kanposantuko zerbitzuak 7 milioi inguruko defizita izan zuen joan zen urtean. Gastuak 9 milioi ingurukoak izan ziren eta, sarrerei dagokienez, taseen bitartez ia 2 milioi batu ziren horrela, zerbitzuaren aurrekontuaren %21,6 betetz. Aurten, berriz, defizita 4,5 milioi ingurukoa izango da, tasei esker 3 milioi inguru jasoko direla aurreikusten baita, zerbitzuaren heren bat hain zuzen ere. B



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialra

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Zapatuan barruan

19:00: Artusamak-FAC
20:00: La Juve-Komando Piperrak

La Juve
FAC

Zapatuan kanpoan

17:00: Mongatxurak-A Ze Flaxa
18:00: Jauja OH Zerezos-Bildurbarek

OH Zerezos
A Ze Flaxa

Domekan barruan

09:30: Txipiron-Irubide Jatetxea
10:30: Amilotx-Zubixaurre Punk
11:30: Etengabe-Urrutxurtu
12:30: Igañekoak-Agirrebeña Jatetxea
16:00: Ari Ari-Sirimiri Eri
17:00: Bayer-Jakina P. T
18:00: Matxakategi-Xurruapak
19:00: Mo(ko)lotov-Ezinleike
20:00: Ion Autoak-SLP

Guadalest
Guadalest
Guadalest
Guadalest
Bayer
Matxaka.
Mo(ko)lotov
Ion Autoak
Ezinleike

Domekan kanpoan

09:30: HHH-Tom Cat Argandolas
10:30: Uve Bikoitza-Patatus
11:30: Moskis-Buya
12:30: Agiñaspi-Pinturas Bergara
16:00: Ufala-Arbe Kirolak
17:00: Azpeitxi Jatetxea-Ortzi
18:00: Guadalest-Amozkibar
19:00: Shaktale-Pagomendi

Guadalest
Guadalest
Guadalest
Guadalest
Azpeitxi
Amozkibar
Shaktale
Guadalest

argi!

SLP hurrengoan kalera

Antolaketa Batzordeak, SLPri 3 puntu kendu dizkio partidua jokatzera ez aurkezteagatik. Hurrengoan txapelketatik kanporatua izango da. Antolatzaileek berriz ere jakinarazi nahi diete taldeei epaile lanak egiterakoan gogo handiagoa jarri behar dutela.

jokoz kanpo



**Karlos Etxaniz
BILDURBAREK
OPEL/LAM**

G. Nolako emaitzak lortu dituzue orain arte txapelketan?

E. Partidu bakarra irabazi dugu. Bi, azkenengo minutuetan galdu ditugu eta joan zen asteko azken unean berdindu ziguten. Ondo gabiltza baina surte txarra daukagu.

G. Zenbat urte txapelketan?

E. Hasi zenetik.

G. Guztira zenbat jokalaria?

E. 15 uste dut. Aurten jokalaria berri bat daukagu, Ibon Larrañaga, Ipintzako txapelketan gurekin aritu izan dena.

G. Bataz besteko adina?

E. 28 gutxi gora behera.

G. Talde banaketa egiteko sistemarekin ados?

E. Bai. Talde berria izan arren eta talde ona bada, lehen mailan izateko aukerak dituelako.

G. Iaz baino hobeto zabilzate?

E. Bai. Seriotasun handiagoa dago baina giro ona eta katxondeorik ez da falta. Partiduak goizean jokatu behar badira, berriz... aurpegiak aldatu egiten dira. Juerga gehiegi egiten ditugu.

G. Puntua ezazu zure taldea 0tik 10era.

E. 8.

G. Txapelketako jokalaria bat?

E. Juan Luis Etxaniz.

gora eta behera



Aldaketak lehen postuetan

Lehen mailako Errotagain taldeak lehen-dabiziko postua eskuratu du. Dena dela, Pagomendi eta A Ze Flaxa Etxagi oso gertu daude. C multzoan, Xurruapak taldeak orain arte lehen postuan nagusi zen Bayerri tokia kendu dio Sirimiri Eriren laguntzaz, 3. postura bidali dute eta!



Ezarririk zigorrak

Amozkibar taldeko jokalaria bati hiru partiduko zigorra ezarri dio Antolaketa Batzordeak; bi partidu, aurkari bat jotzea-gaitik eta beste bat lehen ere zigortua izan zelako. Agiñaspi taldeko jokalaria bati bi partiduko zigorra ezarri zaio baloia jokoan ez zenean, aurkari bat jotzea-gaitik.

emaitzak

Irubide Jatetxea-Usoa	2-7
SLP-Txipiron	0-3
FAC-Ion Autoak	8-1
Komando Piperrak-Artusamak	2-2
Urrutxurtu-La Juve	5-1
Buya-Uve Bikoitza	1-4
Tom Cat Argandolas-Moskis	3-1
Pinturas Bergara-HHH	1-3
Arbe Kirolak-Agiñaspi	3-3
Amozkibar-Ufala	2-5
Patatus-Guadalest	1-6
Agirrebeña Jatetxea-Amilotx	7-0
Sirimiri Eri-Igañekoak	5-2
Jakina Patxaran Team-Ari Ari	3-2
Xurruapak-Bayer	4-1
Ezinleike-Matxakategi	4-1

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. Errotagain	9	4
2. Pagomendi	8	4
3. A Ze Flaxa Etxagi	7	3
4. Bar Canalejas	6	4
5. Ortzi	4	4
6. Bildurbarek Opel/Lam	4	4
7. Mongatxurak	4	3
8. Jauja OH Zerezos	3	3
9. Shaktale	3	4
10. Azpeitxi Jatetxea	3	3

A multzoa

	P	J
1. FAC	15	5
2. Artusamak	10	4
3. Komando Piperrak	10	5
4. Txipiron	9	5
5. Urrutxurtu	9	5
6. Usoa	9	5
7. Etengabe	4	4
8. Irubide Jatetxea	3	4
9. La Juve	2	4
10. Ion Autoak	1	5
11. SLP	-3	4

B multzoa

	P	J
1. Tom Cat Argandolas	13	5
2. Guadalest	13	5
3. Arbe Kirolak	10	5
4. HHH	10	5
5. Moskis	9	5
6. Ube Bikoitza	9	5
7. Agiñaspi	7	5
8. Ufala	6	5
9. Buya	4	5
10. Pinturas Bergara	2	5
11. Patatus	1	5
12. Amozkibar	0	5

C multzoa

	P	J
1. Xurruapak	15	5
2. Sirimiri Eri	13	5
3. Bayer	12	5
4. Jakina Patxaran Team	12	5
5. Ezinleike	10	5
6. Agirrebeña Jatetxea	7	5
7. Mo(ko)lotov	6	4
8. Ari Ari	6	5
9. Matxakategi	3	5
10. Igañekoak	1	4
11. Zubixaurre Punk	0	4
12. Amilotx	0	5



2. mailako kadeteak primeran

Bigarren mailako kadeteak Almenen kontra jokatu zuten joan zen astean. Joko polita erakusteaz gain, partidu osoan zehar nagusitu ziren Fernando Oregirenak, eta 7-0 irabazi zuten. Lehen zatian bost lortu zituzten, hala ere, ez zuten atsedetik hartu eta bigarrenean beste bi gol lortu zituzten. Almenek ez zuen zortirik izan, ez baitzuen golik sartu.

Kadeteen mailan ari diren talde gehienak urtebete zaharragoak dira, baina dirudenez, horrek ez du bergararren eraginik izan. Asteburu honetan lehendabiziko postuan dagoen Urkiren kontra jardungo dute. Une honetan 2. postuan daude bergararrak eta irabaziz gero, lehenean izango lirateke.



Jubenilek lehen garaipena

Oraingo, jokaturako hirur partiduetatik bakarra irabazi arren, joan zen astean eskubaloian garaile atera ziren bakarrik izan dira jubenil mailakoak, izan ere, 22-21teko emaitza lortu zuten Urola taldearen aurka. Horrela, bosgarren postuan sailkatzea lortu dute.

Partidu osoan zehar Bergara izan zen nagusitu zena eta alde handia lortu zuen markagailuan. Azkenengo minutuetan, Josetxoren jokalariek baloi asko galdu zituzten eta Urola taldekoak gerturatu egin zitzaizkien, garaipena lortu ez arren. Entrenatzailearen hitzetan, garaipena lortzeko beldurra izan zitekeen. Joseba Larrañaga izan zen golegilerik onena, zortzi gol egin baitzituen.



Neurketa gogorra asteburuan

Jubenil mailako mutilek, partidu zaila dute astebukera honetan. Askatuak taldea lehendabiziko postuan dago eta orain arte markagailuan alde handia lortzen ari da kontra izan dituen talde guztiekin. Inigo Martinen mutilek ez dute horrelako zortirik izan. Arrazoiatariko bat, lesionatuta dauden bi jokalaririk dira.

6 jokalarientzat lehendabiziko urtea da maila honetan. Partidu bakarra irabazi dute eta gainontzeko hiruak galdu. Joan zen astean, Santo Tomas Lizeoaren kontra jokatu zuten eta 65-51 galdu zuten. Lehen zatian amaieran 25na zihozten arren, 2.ean donostiarrak in-dartsuago azaldu ziren eta markagailua euren aldera makurtzea lortu zuten

90 ANTIXINTXIKALARIK EMAN DUTE IZENA BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETARAKO



Azaroaren 8an korrituko den Behobia-Donostia lasterketara doazen batzuk, joan zen zapatuan Behobia Txiki aprobeztatu zuten prestaketa saio gisa. Hamabost kilometroko ibilaldia egin ondoren, bertan bildu ziren 55 korrikalari inguruk Iraho jatetxean elkartu ziren mahaiaren inguruan okasiorako antolatutako bazkarian.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Amaiak Bat

Bigarren mailako jubenilak
Zapatua. 17:00. Ipintza

Bergara-Eibar

Lehen mailako kadeteak
Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Urki

Bigarren mailako kadeteak
Zapatua. 15:30. Ipintza

PILOTA

Bergara-Eibar

2. mailako kadeteak

Bergara-Azpeitia

Jubenil mailakoak

Bergara-Soraluze

Junior mailakoak

Bergara-Elgeta

Lehen mailako seniorrak

Eguakitza. 21:00. Pilotalekua

KAFE BAQUE TXAPELEKTA

De Vega-Herran (Bergara)
Biteri-Ormaetxea
Azagirre (Bergara)-Lopez
Nuñez-Alberdi

Martitzena. 19:00. Pilotalekua

PROFESIONALAK

Euskadiko 4 1/2ko txapelketa

• Banaka:

Berasaluzer VIII-Balardi
Errasti-Rai

• Binaka:

Alustiza eta Armendariz
Unanue eta Errandonea

Zapatua. 16:45. Pilotalekua

SASKIBALOIA

Bergara-Askatuak

Jubenil mailako mutilak
Zapatua 12:15. Kiroldegia

Bergara-Celtic Bidasoa

Jubenil mailako neska
Zapatua. 16:00. M. Lagundia

Bergara-Andraitz

Kadete mailako neska
Domeka. 12:15. M. Lagundia


ESKUBALOIA

Iraundi Bergara-Loiola

Senior mailakoak
Zapatuan. 17:45. Kiroldegia

Bergara-Ordizia

Jubenil mailako neska
Zapatua. 16:00. Kiroldegia



AMAIA ALBAIEN

Haritz eta Iker garaipenarekin iritsi dira Mundialetik “Harreman onak egin ditugu atzerriko pilotariekin”

Mexikoko Munduko Pilota Txapelketa joan zen domekan amaitu zen eta bertan izan diren Iker Murrumendiaren eta Haritz Berraondoaren Mexikotik bertatik txapelketaren gorabeherak azaldu zizkiguten astelehenean. Ohetik jaiki berri harrapatu genituen San Francisco hotelean aurreko egunean egin dako parrandaren ostean, baina horrela izanda ere, ez zuten hutsik egin.

Galdera: Mexikotik urrezko domina eskuratuta

itzuliko zara etxera, zaila izan da?

Iker Murrumendi-raz: Hiru partidu jokatu ditut. Hasierako biak Iparraldekoen kontra eta bietan 22-11ko emaitza lortu genuen; finala, ostera, kubataren aurka izan zen. Ez dira partidu gogorak izan. Finala izan da errezena. Lizarrako Patxi Ruizekin jokatu nuen. Aurkariak motel aritu ziren eta ez zen partidu interesgarria izan. Ia ezer egin gabe irabazi genuen urrezko domina, ez genuen gozatu. 19-0 irabazten hasi eta 22-2 amaitu genuen.

G. Ikusminik sortu zuen finalak?

I.M. Ez gehiegi. Aurreko partiduak baino handiagoa, baina, hala ere, ez zen jende askorik gerturatu.

G. Nolako zabalkundea eman diote bertako komunikabideek txapelketari?

I.M. Elkarrizketa bat egin zidan bertako telebistak, baina txapelketak ez dut uste jarraipen handirik izan duenik. Guk, behintzat ez dugu hori nabaritu ez dugu gauza handirik ikusi ez telebistan eta ez prentsan. Euskal Herriko kazetari ugari izan da eta hauek ja-

rraipen eta interes handiagoa jarri dute.

G. Zer iruditu zaizue txapelketaren antolaketa?

I.M. eta Haritz Berraondo. Eskasa. Mexikarrak pertsona onak dira, baina ganora gutxikoak. Ez genuen entrenatzeko pilotalekurik. Noizean behin bakarrik entrenatzen genuen eta entrenatzeko tokia genuenean, ordubate lehenago jakinarazten ziguten. Horrek ez dizu ia gertatzeko astirik ematen. Pilotalekuak aterpe gabekoak ziren eta euria egiten zuenean zeharo bustita zeuden. Ez zituzten ino-

la ere zaintzen. Guk geuk gertatu behar izaten genituen ondoren entrenatu ahal izateko, euria sikatu eta lurra garbituz.

G. Mexikarren kontrako partiduan arazoren bat izan zen...

I.M. Partidua jokatzera gindoazela, eskuetan tako arraro samarrak zeuzkatela konturatu ginen. Kautxuzko takoak ziren. Protesta egin

"Mundiala izateko, antolaketa aldetik ganora gutxi erakutsi dute mexikarrek; entrenatzeko pilotalekurik ere ez genuen"

genuen eta batzordeak mexikarrak txapelketatik kanporatzea erabaki zuen. Palaz jokatzeko ari zirela ematen zuen. Normalean laugarren koadrotik pasatzen ez baziren, takoekin erreboteratu bidaltzen zuten pilota.

G. Haritz, ez duzu zorte handirik izan partidua irabazi arren.

H.B. Partidu bakarra jokatu dut, baina hori ez da nire erabakia izan, entrenatzailearena baizik. Gogorra izan zen, nahiz eta 22-4 irabazi. Fisikoki bertakoak ohituta zeuden, altuerara, esaterako.

G. Janaria txarra izan dela jakin dugu.

I.M. eta H.B. Oso txarra. Etxekoa probatzeko izugarriko gogoia daukagu. Nik (Haritz) 3 kilo galdu ditut.

G. Gaua ezagutzeko aukera izan duzuela ere bada-kigu...

I.M. eta H.B. Txapelketa 25ean amaitu zen. Gauean diskotekara joan ginen, kafean ibiltzea nahiko arrisku-tua baita. Izugarriak dira TBan ikusten diren albistekak. Bertan selekzio guztietako pilotariak bildu eta ondo pasatu dugu. Harreman onak egin ditugu, batez ere kubatarrekin.

G. Hurrengo mundiala non?

I.M. Lau urtean behin egiten da. Hurrengo Bilbon edo Santanderren izango ote den zurrumurruak entzun ditugu. B



240 AEROBIKZALE BILDU ZIREN STEP MARATOIAN

Hiru orduz jo eta ke aritu ziren joan zen zapatuan Bergararik eta inguruko herrietatik kiroldegira hurbildu ziren 240 aerobikzaleak. Soinu arazoak izan arren, partaideek ez zuten monitoreen aginduak jarraitzeko arazorik izan. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete bertara hurbildu ziren guztiei.

ESKOLA KIROLA

KARTELDEGIA

Saskibaloia

Mariaren Lagundian

Benjamin maila:

10:00. M Lagundia B-Aranzadi 3

10:00. M Lagundia E-Aranzadi 6

11:00. San Martin A-Aranzadi 2

11:00. San Martin B-Aranzadi 5

12:00. Antzuola A-Aranzadi 1

12:00. Antzuola B-Aranzadi 4

Atsedena: M Lagundia A eta D

Futbola

Ipintzan

• Infantil mailako mutilak:

12:15. Aranzadi-M.Lagundia

• Alebin mailako neskek:

10:45. Antzuola-Elgeta

11:30. M Lagundia-Aranzadi 14

11:30. San Martin-Aranzadi 13

• Alebin mailako mutilak:

9:00. M Lagundia B-Aranzadi 12

9:00. Antzuola-Elgeta1

10:00. Aranzadi 13-Aranzadi 11

10:00. Aranzadi 10-San Martin

10:45. Aranzadi 8-Aranzadi 9

Arsedena: M Lagundia A

Eskubaloia

Labegaraietan

Infantil mailako neskek

11:00. Aozaraza 1-Aranzadi

11:00. Aranzadi-S.F Xabier

Aitor Zabaleta laugarren aldiz Epainiako txapeldun

Ibizan jokatu zen azken proban, Andres Vilariñok ezin izan zion aurrea hartu bergararri. Bien artean zegoen hiru puntuko aldeak ziurtatu egiten zuen emozioa. Entrenamenduan, Vilariñok egin zuen denbora hobea, baina proban errekorra lortu zuen Aitorrek 2:05.905 denborarekin, eta Vilariñok egindako 2:08.927 denboraren aurretik jarri zen.



Haritz eta Iker eguaztenean iritsi ziren Mexikotik.

AMAIA ALBAIEN

1. ETXEBIZITZAK

Saldu

Etxea salgai Osintxun. Erdi-amueblatua. 943 76 49 74.

Pisua salgai San Lorentzon. 943 76 31 16.

Pisua salgai Martokan. 943 76 34 20/37 99.

Pisua salgai Aranerrekana. 943 76 52 17.

Pisu amueblatua salgai San Lorentzon. 943 76 21 63.

Erosi

Pisua erosiko genuke Bergaran. 943 76 57 87.

Errentan hartzeko

Pisua alokairuan hartu nahi dut Bergaran. 943 78 71 31 (Jose Luis).

Etxe konpartituak

Bergaran pisua osatzeko lagun bat behar da. 943 76 47 55.

Bi pertsona behar dira Bilbon (San Inazio) pisua osatzeko. 943 77 13 77.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarar ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/
MOTOAK**

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak

Goizez, etxeko lanak egin edo hurrak zainduko nituzke. 943 76 46 07.

Atarien edo etxeen garbiketara. 919 52 98 04.

Etxe lanak orduka. 943 76 57 59 (Julia).

Arratsaldeetan hurrak zainduko nituzke. Esperientzia. 943 76 03 76.

Edadetuak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 09 33.

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebukeraren). 943 76 50 46.

Lanak ordenadorez pasatzen ditut (testuak zein grafikoak). 943 76 61 24.

Tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 37 56.

Neskak hurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34.

Hurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 78 70 32 (Sara).

Esperientziadun neska batek helduak zainduko

2. GARAJEAK

Saldu

Garajea Torrekuan. 2 plaza. 943 76 28 24.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 27 71.

Burdiñate. 943 76 40 74.

Ibargarai. 943 76 57 93.

Garajea salgai Masterrrekan. 943 76 24 57.

Boni Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Kruz Gallastegi. 943 76 27 61.

Errentan emateko

Garajea alokairuan Bolun. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

Saldu

Lokala salgai A. Flemingena. 943 76 00 84/ 35 83.

Erosi

5.000 m²ko lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. 943 76 70 24.

40 m² inguruko biltegi edo baxua behar dugu. 945 14 17 84 (17:30-20).

Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegi. 943 76 11 89.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 /76 37 80 (gauetz).

Gozogintzan aintzindari.

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

OILAGORRA TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

lituzke. 943 76 32 16.

Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko. 943 76 47 76.

Neska behar da, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943 76 70 33.

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 76 47 93.

Pertsona bat behar da Antzuolan etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 943 78 71 06.

Emakume bat behar da gizon bat orduka zaintzeko. 943 79 37 68.

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Majisteritzako ikasleak OHO klaseak ematen ditu. 9437647 30.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Mate, fisika eta LOGSE 2. mailara arteko klaseak. 943 76 24 31.

1. eta 2. DBH klaseak. 943 76 42 08 (Nere).

Arte Ederretan lizentziatuak pintura, marrazketa eta grabatu klaseak ematen ditu. 943 76 03 83 (Dani).

Eskaerak

Italiera klaseak jaso nahi nituzke. 943 76 64 14 (Eva).

6. AUTOAK/MOTOAK

Saldu

Aprilia Climber 91 motorra salgai. 943 76 07 28 (Ion).

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa Romeo 33 1700 i (SS-AK). Aire egokitua. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Remolkea salgai. 1,10x1 m. Poliesterrezko tapa. 943 76 37 87.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra kotxea (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

Saldu

Artzain-txakurrak eta polizia-txakurrak salgai. 943 76 52 21.

Beagle (eta honen gurasoak) eta Tekel txakurkumeak.. 908 87 93 76.

8. DENETARIK

Saldu

Holton tronpeta salgai, egoera onean (75.000 pezeta). 943 76 48 23.

Labadora, hezetasuna kentzeko tresna eta on-

tzigarbigailua salgai. 943 76 00 85.

Motorola telefono mobilak salgai. 8.000 pezeta. Deitu 907 34 46 58 telefonora.

Kotxerako Pioneer irratikaseta eta edurretarako kateak salgai. Deitu 943 76 08 25 telefonora.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Flex markako litera bat eta telefonoarendako egurrezko muebleak salgai. 943 79 57 64.

Galdu

Hilaren 18an perikitoak ihes egin zigun kaiolatik Mugertzan. 943 76 32 09/32 10. Sarituko da.

Zilarrezko kataia galdu zait egunotan. Delfin eta dordokatxo batekin. 943 76 70 75.

Mickey Mouse-ren irudia duen eroljua galdu dut. 943 76 42 56.

Aurkitu

Urrezko pultsera bat aurkitu dut. 943 76 11 80.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

LANBIDE HEZKUNTZAKO LH2 MEKANIKOAK
Donostia. 13139/2

INPRIMATZAILE FLEXOGRAFIKOA
Arratia-Nerbioi. 13735/0

BEROGAILU INSTALAZIOKO IRAKASLEA
Bilbo. 13469/2

ENKOFRADOREEN IRAKASLEA
Bilbo. 13471/2

ESTETIZISTA
Ibai Ezkerraldean. 13515/1

GIMNASIA ERRITMIKOKO IRAKASLEA
Bilbo. 13667/1

ANALISTA PROGRAMATZAILEA
Donostia. 13709/1

BODEGARAKO PIOIA
Arabar Errioxa. 13461/3

AROTZA
Gasteiz. 13744/3

HOTELEKO ZUZENDARIA
Markina-Ondarra. 13762/1

AUTOEN PINTOREA
Ibai Ezkerraldean. 13766/0

INFORMATIKA IRAKASLEA
Donostia. 12676/3

INFORMATIKAN LIZENTZIATUA
Deba Garaia. 12707/3

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



☎ 943 76 20 61

MAHER Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

BEGIRALEAK

Astebukaeretan Antzuolako Gazte Txokoa gaztetxoekin lan egiteko begiraleak behar dira.

INTERESATUEK BIDALI CURRICULUMA AZAROAREN 6A BAINO LEHEN BERGARAKO KARTZELA ZAHARRERA. Tf. 943 76 36 61/76 08 19




IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia, BIOTER produktuak, haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Kizkur



Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Berrigara Gida 99



Berrigara Gida 99, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida pres-tazen dihardugu. Aitziber Aretxaga (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profes-ionalen telefonoak jasoko ditu.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzialenak eta par-tikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 99 liburutxoak: **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi badu-zu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke (943 76 03 97).

Berrigara Bergarako astetoria

Bigarren urteurrena ospatzeko prestatzen

Mariaren Lagundiko eliza eraberritzen dihardute hilabete hauetan

Mariaren Lagundiak 200 urte bete-ko ditu datorren urtean Bergaran. Hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte. Bestalde, urteurrena dela eta, ikastetxea, eliza eta inguru guztiak berriren jardun dute azken urteotan. Egun hauetan eliza eraberritzen ibili dira.

Siglo XXI enpresa aritu da Mariaren Lagundiko eliza eraberritzen. Obrak irailaren 11n hasi zituzten eta azaroaren erdialderako amaituta izango dituzte. 15 bat lagun, guztiak Arte Ederretan lizentziatuak, aritu dira eraberritze lanetan Eusebio Corcuerearen aginduetara. Errestaurazio lanak amaitu ostean, zoruan berriz ere egurra jarriko dute eta azken ikutuak egin eta gero, abenduaren 15ean lan guztiak amaituta egotea espero da.



Siglo XXI enpresako hamabost bat lagun dihardute elizaren kontserbazio eta birgaitze lanetan.

Kontserbazio eta birgaitze lanak egin dituzte. Margoen degradazioa ekiditeko eta hauek ondo gordetzeko tratamendu berezia eman diete pinturei. Hezetasunak, keak eta kutsadurak hondatutako irudiak eta margoak garbitu egin dituzte eta kolpeekin puskatuta zeuden zati batzuk berreraiki. Polikromia guztia garbitzeko borraratekoak erabili dituzte; toki batzuetan disolbenteak ere bai, baina kotoia erabiliz. Galduta zeuden pinturak berreskuratzeko lapitza, ikatz-ziria eta pintura akrilikoak erabili dituzte zati batzuetan. Batez ere kupulako margoak, irudiak, zokaloak eta pilastrak garbitu eta birgaitu dituzte.

Mariaren Lagundiko eliza berri samarra da eta bertako elementu gehienak joan zen mendekoak dira. Elemen-

tu arkitektoniko asko faltuak dira: ko-roaren azpian dagoen artisonatuak egurrezkoa ematen du, baina igeltsuzkoa da. Zokaloak eta pilastrak marmol itxurakoak izan arren, egurrezkoak dira.

Irudirik zaharrena Soledadeko Ama Birginarena da, irudi barrokoa da. Gai-nontzeko irudiak, egurrezkoak, joan den mendekoak dira, San Luis Gonzagarena izan ezik, hau mende honetako da eta moldearekin egindakoa da.

Mariaren Lagundia Bergarara etorri zela 200 urte betetzen dira datorren urtean. Halere, edifizioa eta eliza berriagoak dira. Edifizioa 1805ean hasi ziren eraikitzen eta eliza, berriz, 1824. urtean. Lehenago Soledadean egon ziren Mariaren Lagundiako monjak. B



IKUSBI

ALKANDORAK,
JERTSEAK, BAKEROAK
ETA OSAGARRIAK

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

LONBIDE

OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



GURIA

Taberna

Bidekurutzeta 5

☎ 943 76 20 34

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Hitz egiteko ahalmena. 2. Atseginak. Ordaindu gabe. 3. Meak. Kontsonante bikoitza. 4. Garai. Nuen, hari. Bokala. 5. Igaroa. Iparretarrak. 6. Kolore mota. Emea gurasoekiko. 7. Ald., modu atzikia. Errepikatuz, txori mota. San Frantzisko-ren jaioterria. 8. Bostheun. Teilen azpiko oholtza. Fosforoa. Tona. 9. Erakustearen ekingintza. 10. Barazki mota. Moduak.

Goitik behera

1. Mahai berekoa. 2. Pluralean, barazki mota. Kontsonante bikoitza. 3. Oparoak. Sindikatu abertzalea. 4. Nazioarteko garraioetan. Pertsona. 5. Sustraiak. Bururatua. 6. Intsektu bizkarroia. Artsenikoa. 7. Mila. Australiako ugaztuna. Suari dario. 8. Ukatzeko. Nitrogenoa. ...eginda, asperturik. 9. Zein. Igarobide. Tantalioa. 10. Pluralean, harrera ona edo oniritzia.

Soluzioa

10. Arrakastak
9. Nor ibi. Ta
7. M. Koala. Ke. 8. Ez N. Asper.
5. Zaina. Otu. 6. Akaina. As
3. Naroak LAB. 4. TIR. Gizaki.
1. Mahakidea. 2. Iltarrak. Rr.
Goitik behera
9. Erakusker. 10. Arbia. Erak.
7. Ik. Zo. Asis. 8. D. Lata. P. T.
5. Iragana. Ik. 6. Kaki. Alaba.
3. Harriak. Rr. 4. Aro. Nion. A.
1. Mintzammena. 2. Alaiak. Zor.
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereibar

"Infernukua" zaharra 20. hamarkadan zabaldu zuten; aurrerez bazen beste taberna bat, gero "Infernukua" izena sortarazi zuena. Zein izen zuen?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

- Blind Guardian musika taldea Jam-en izango da zapatuan. Nongoa da?
A- Estatu Batuetakoa
B- Britania Handikoa
C- Alemaniakoa
- Noizkoa da Matxiategin dagoen Bergarako kanposantua?
A- 1855ekoa
B- 1905ekoa
C- 1703koa
- Zein urtetan ekin zien Mariaren Lagundiak Afrikako misioei?
A- 1942an
B- 1948an
C- 1898an

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Osintxu asadorean** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Mari Asun Gardokirentzat** izan da: Agirrebeña jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Mari Asuni! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Iriaungo San Andres** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Osintxu
asadorea

Osintxu 16
Tf. 943 76 33 08



Osintxuko Ola baserrikoa, Juantxo Urbietarekin Euskadiko Dantza Askatuko txapelduna izan zen birritan, 84an eta 86an. Udaleko Idazkaritzan, Kirol Zerbitzuan edota Bulego Teknikoan izan da lanean. Azken bi urteotan Udal Biltegian ari da.

Biltegiko lanik atseginena?

Bulegoko lana.

Eta txarrena?

Grua erabiltzea.

Telefonoa ala walkiarekin gehiago?

Biekin antzera.

Zein ordutan jeikitzen zara?

Zazpietan.

Eta oheratu?

Hamaiketarako.

Dantzari ona izateko zer behar da?

Sufritzen jakin eta gustatu.

Fandangoa ala arin-arina?

Fandangoa.

Dantzari sasoiko oroitzen on bat?

Seguran Euskadiko lehen txapelketa irabazi genueneko.

Dantza bikoterik onena?

Lurdes Esnaola eta Juan Jose Ugalde lezotarrak.

Erromerian dantzan egiten duzu?

Bai, asko gustatzen zait.

Gustoko jantzi bat?

Prakak.

Zer ez zenuke sekula jantziko?

Gona motz bat.

Perfume bat?

Byzance.

Telebistako iragarki bat?

Ez daukagu telebistarik...

Liburu bat?

Nosotras que nos queremos tanto (Marcela Serrano).

Amaia Agirre

Abeslari bat?

Xabier Lete.

Pertsonaia historiko bat?

Xalbador.

Beldurra, zeri?

Hiltzeari.

Janari eta edari bat?

Onddoak eta ardo beltza.

Osintxuko gustoko txoko bat?

Plaza.

Ilea motza ala luzea?

Luzea.

Ileapaindegira zenbatero joaten zara?

Bi hilabetetik behin edo...

Noiz jartzen zara sutan?

Esana ez didatenean entzuten.

Hobby bat?

Antxintxika eta mendia.

Gustoko mendi bat?

Orhi.

Perretxikotara joaten zara?

Bai.

Behobia-Donostia korrituko duzu?

Bai, aurten zazpigarren aldiz joango naiz.

Eta noiz hasten zara entrenatzen?

Irailean.

Zelako gobernua osatzea

nahiko zenuke?

EHk ezetz esan du..., abertzaleen artekoa.



**UDAZKEN
KULTURALA
98**



A Z A R O A

EGITARAUA

- 98/XI/7** Markeliñe antzerki taldearen *Kale gorrian*
22:30. Novedades aretoan
- 98/XI/14** Gasteizko Alaitz Abesbatzaren kontzertua
20:00. San Pedro parrokian
- 98/XI/21** UNICEF-ekin antolatutako haurren eskubideen aldeko jaia eta botoa ematea
11:00-18:00
22:30. Bergarako Orfeoia eta Opus III perkusio taldearen kontzertua Udal pilotalekuan
- 98/XI/22** Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua
12:00. Udal pilotalekuan
- 98/XI/28** Adalberto Martinez Solaesa, Malagako organistaren kontzertua
20:00. San Pedro parrokian.

ZINEA

- Ostegunero, 20:00etan zine-klubeko pelikula hautatuak
98/XI/5 *Laura* (Otto Preminger) (jatorrizko bertsioa azpigit.) 21:30



Katekesi ikasleak, 1931

Aspaldiko argazkia ekarri dugu aste honetan. Jesus Larrañagak lagatako argazki honetan agertzen diren mutilak identifikatzea ezinezkoa izan zaigu. Kontua da bertan agertzen diren gaztetxoek katekesi klaseak jaso zituztela 1930 eta 1931n. Antza denez, mutilak eta neskek ez ziren orduan elkarrekin klasera joaten eta argazkian agertzen diren emakumeak orduko katekistak dituzue. Klaseak Azi-Ona

zinemako aretoan izaten ziren eta argazkia, hain zuzen, zinemaren atzealdeko lorategian aterata dago (gaurko Burdiñateko etxeen inguruan alegia). Ikusten denez, mutil koadrila handia joaten zen orduan klaseetara eta lezioak entzun ondoren futbolekin eta bestelako jolasetan aritzen ziren zinemaren inguruan.

Argazkia: Jesus Larrañaga

OHARRA

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra eta konejoo
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tf.: 943 76 55 74



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



AURRETIK

Mikropigmentazioa

Nabarmendu zure edertasuna
makilaje iraunkorrekin



ONDOREN

Dei egizu konpromezu barik eta behar
beste informazio emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA




AURRETIK



ONDOREN

ALZAS elektragintza

Korrente alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzituen
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxa: 943 76 62 99



Ehunak eta oihalak

Tapizeriak

Kortinak

Nordikoak

Era guztietako etxerako gaiak

Gotzon Agirrezabal

Tf.- 943 76 72 52 -Faxa

ORDUTEGIA

astelehenetik zapatara:

10:00-13:00

eta 16:00-20:00.



Amillaga 5ean bi denda berri dituzu

Renault-en ondo



Dekorazio profesionala

Denetik pintura-dekoraziorako



Milaka kolore egiten ditugu momentuan

Tf. 943 76 52 42

Faxa 943 76 56 17



Egiguzu bisita!